Jauregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658  
Fax: 943 331 208 e-maila: mgarayar@facilnet.es 20120 Hernani (Gipuzkoa)

LIBURUDENDA • PAPERTEGIA

**LEOKADISTI**

Hemen dituzu behar  
dituzun opariak.

Gabon zoriontsuak opa  
dizkizuegu guztioi

© 943 551 229  
Urbieta, 6 - behea

**LIZARRA**  
Automekanika

Eguberri on!!

Kotxeen konponketa orokorrak  
Engrasatzea, olio aldaketak...

Ziuharago auzoa, 61 - 3. pab.  
20120 HERNANI

© 943 556 771

**AURTENGO GABONETAN OPARITU BIDAIK**

**HERNANI BIDAIK**  
Urbieta, 6  
943 33 00 49  
hernanib@tefeline.es  
www.hernanibidaiak.com

<b>HESPERIA AREATZA BAINUETXEA</b> Gau bat MP + zirkuito termal bat	71 <sup>100</sup> €
<b>HOTEL LONDRES (Donostian)</b> Gau bat itsasoari begira AD+ zirkuito termal bat La Perlan	132 <sup>152</sup> €
<b>SALOU</b> , Apirilak 9tik 15ra 6 gau HOTEL 3* PC, 2 heldu + 2 ume	395 <sup>100</sup> €
<b>ERROMA URTE BUKAERA</b> , Abenduaren 30tik Urtarrilaren 2ra Madriletik hegaldia + 3 gau HOTEL 4* AD	324 <sup>100</sup> €
<b>NUEVA YORK</b> , Urtarrila eta Otsailean Madriletik hegaldia + 7 gau HOTEL 3* S.A	971 <sup>100</sup> €

**OPARI GEHIAGO ERE  
BADITUGU**

**vip kofreak**

NEKAZAL ASTEBURUA,  
ZEN EGONALDIA,  
BI LAGUNTZAT SPA...  
**49<sup>990</sup>€TIK AURRERA**

**Kontsulta itzazu  
aukera guztiak!**

**GABONETAKO ZOZKETA**  
Ekarri zuen marrazkiak gure bulegora eta parte hartu PORT-AVENTURARA joateko egingo dugun zozketan  
ZOZKETA EGUNA: URTARRILAREN 4a GURE BULEGOAN, ARRATSALDEKO SEIETAN.

**BALDINTZAK:** Gaia: "BIDAIK"  
Adina: 4-11 URTE  
EPEA: urtarrilaren 4a

**SARIA:** Apirilaren 9tik 15era  
Port-Aventuran 6 eguneko egonaldia, pentsio osoan  
2 heldu eta 2 umeentzako + 2 egunetako sarrerak  
edo baliokidea

**Eguberri On guztioi!!**

www.hernanibidaiak.com      www.bidaibila.com

**ETXEKO GAUZAK**



Hernanin: Antziola, 1 behea  
943 33 57 12

### OPARI PROMOZIOA

Gurekin BANUONTZIA DUTXA-Z aldatzeagatik, afari bat bi pertsonentzat oparitzen dizuegu FAGOLLAGA (Hernani) jabetxean.

**ITURGINTZA, GASA, BEROGAILUA, AIRE GIROTUA**

**EGUBERRI ON!!**

**LEHEN**



**ORAIN**



**BAÑERA KENDU ETA DUTXA JARTZEN DIZUGU AZKAR-AZKAR, SISTEMA ERRAZA ETA GARBIA.**

## Amegar

etxe tresnak - altzariak

**ACTIVA** **DECORactiva**

**Zorionak eta Urte berri on!**




Txirrita kalea, 13-15  
Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 16 03

**ondo pasa gabonetan!**

### ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Muebles de Cocina

## Iparrasukaldeak

www.iparrasukaldeak.com

Ibarluzea poligonoa, 7  
Telf: 943 55 67 60 Fax: 943 33 19 75  
Info@iparrasukaldeak.com

Logela, komun eta sukaldeko altzari pertsonalizatuak diseinatzen ditugu. Bertan fabrikaturiko altzariak

**ESKATU AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE!**





## Urumea

**BURDINDEGIA**



Zorionak eta Urte berri on!

Kale Nagusia, 42 - 943 551 327

**cenor BALANTXA**

**ELEKTROGAILUAK**

Gabon hauetan oparitzeko behar dituzun elektrogailu guztiak ditugu!!

**NAGUSIA, 17**  
**943 33 40 22**



Hilabete honetan eskaintza zabala kafe-makinetan

**Eguberri on!!**

## MUGALDE

**UGALDE S.A.**  
**SUKALDE ALTZARIAK**

**K21**

Lastoia industrialdea, 16. p  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
Tel. 943 551 598  
Tel. eta Faxa 943 552 067  
Mugl. 630 033 080  
e-mail: ugaldesukalde@euskalnet.net  
www.ugaldesukaldeak.net

**Eguberri On!!!**



## WENDAUR

*Zorionak eta urte berri on!*

*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu*

Tel. 943 33 04 83 - 943 33 04 43  
www.innomendaur.com • mendaur@innomendaur.com  
Kardaberaz 44 - behea. 20120 Hernani (Gipuzkoa)



**1. Zein da orain arte txapelketari buruz duzun inpresioa?**

**2. Zein irudi edo momenturekin geratu zara?**

**Bi galdera horiek erantzun zituzten zortzi bertsolariek asteartean, prentsaurrean:**

**JEXUX MARI IRAZU:**

1. Berezia izan da, kale edo balekoa. Eta gus-tora nago egindako lanarekin.

2. Bertsolariak gaiarekin asmatzen saiatzen gara. Tolosako saioan, kartzelako gaian, bizitutaiko gai bat etorri zitzaidan burura, eta benetan gertutakoa kontatu edo ez zalantza izan nuen. Azkenean aurrera egitea erabaki nuen, eta asmatu nuen.

**BEÑAT GAZTELUMENDI:**

1. Berandu xamar sartu nintzen, eta zegoen maila altua ikusita beldur pixkat nuen. Sentsazio ona daukat, baina ez nahi nukeen bezain ona.

2. Villabonako saioan anaiarekin egin nuen kopletan, eta oso berezia izan zen, lehenengo aldia zen txapelketa batean elkarrekin aritzen ginela.

**UNAI AGIRRE:**

1. Konforme geratzeko aukera izan dut. Denboraz justu ibili naiz aurten, eta Txapelketa ezin izan dut nahi adina segi. Parte hartu arte ez dut jakin zein maila zegoen. Horrez gain, ikusten jende asko ibili denaren sentsazioa dut.

2. Tolosan izan zen hasieratik bakarka ateratzen nintzen aurreneko aldia, eta niretzat oso berezia izan zen, reto berezia alegia.

**AGIN REZOLA:**

1. Askok ikasi dula konturatu naiz: oholtzan egoten, gaiei heltzen... Hala ere asko dut ikasteko, eta horretan jarraitu nahi dut.

2. Eibargo saioan, nik botatako bertso baten ostean, aitona bat aulkitik altxata, algaraka eta txaloka ikusi nuen. Irudi hori grabatua geratu zait.

**AITOR SARRIEGI:**

1. Momentuz, sentsazio gazi-goza da. Erregularragoa izan nahi nuen.

2. Nere zapatekin geratu naiz. Gauzak ondo ez dijoazenean asko begiratzen ditut zapatak, eta momentuz, hortik asko izan du Txapelketak.

**ALAI MARTIN:**

1. Txapelketa luzea izan da, baina pakean geratu naiz nire buruarekin, sentsazio ona dut.

2. Ez naiz irudi batekin geratu, album bat bete dut. Argazki orokorra daukat.

**JON MARTIN:**

1. Lehia estua, parekatua izan da. Felixekin puntutan berdinduta bukatu dut, eta hurrengotik oso gertu.

2. Idiazabalgo aurreneko bertso puntugarriarekin geratzen naiz. Ordura arte ez nekian nola arituko nintzen, eta hor lasaitu nintzen, neure burua ondo ikusita.

**IÑAKI APALATEGI:**

1. Aurrerapen haundiak egin ditut, baina aurreratzeko bide haundia dut aurretik.

2. Kartzelatik bueltatzean izaten dudana sentsazioa gustatzen zait. Normalean bertsolariei ez zaie gustatzen, baina neri jendearen indar hori iritsi egiten zait. Ahalko banu, luzatu egingo nuke.

**GAZTELUMENDI, IRAZU, AGIRRE ETA REZOLA GAUR, FINALEAN**

# Gogoa eta ilusioa badute lau ordezkariak, Txapela falta

Hernaniko lau ordezkariak ez dute momentuz

Gipuzkoako Txapelik.

16:30etatik aurrera hori

eskuratzea dute helburu.

PROBABILITATEARI kasu eginez gero, Hernaniko Bertso Eskolako kideren batek txapela janzteko aukera %50ekoa da. Baina beste gai askotan bezala, bertsolaritzan ere 1+1 ez da bi, eta aukera, hori baino zabalagoa izan daiteke. Adituek diotenei kasu eginez gero, Hernaniko ordezkariaren bat ia ziur iritsiko da buruz burukora, eta irabaztea ere, ez du urruti izango.

Kontuak kontu, finalerako lan guztiak eginda, prest daude Iraulio Panttalone Bertso Eskolako lau ordezkariak egun haundirako. Kronika beraiekin bildu da, euren sentsazioa jaso eta pronostikoa emateko asmoarekin.

**JEXUX MARI IRAZU:** «Ez dut uste topea jo dudarik, ez nuke nahi» Irazu gustora dago orain arte txapelketan egin duen lanarekin, eta dioenez, zentratuta ikusi du bere burua. Topea jo al duen galdetzerakoan, ezetz dio: «ez dut topea jo dudarik uste, ez nuke nahi behintzat». Pronostikoak egitea ez du atsegin, «kantatu eta kinielak egin, hori gehitxo da» dio, baina bere burua, azken txanpan, buruz burukoan, ikustea gustatuko litzaiokeela aitortu dio Kronikari: «saiatuko naiz ataka horretan sartzen, eta bi irauliotar badira, hobe».

Iluntzeko 20:45ak aldera jakingo da irabazlearen izena, eta guztia amaitutakoan, lan ederra egin izanaren sentsazioa izatea gustatuko litzaioke: «nahiko nuke eskaileratik jaitsi, eta neure buruari esan, *Bejondeikela, gaur lan ederra egin dek!*».

**UNAI AGIRRE:** «Finalera goazen edonork dugu buruz burukora sartzeko aukera»

Gipuzkoako Txapelketako azken bi finalerara iritsi bada ere, Unai Agirrek ez du bere burua Gipuzkoako onenen artean kontsolidatua ikusten: «hori esatea gehiegi da». Egia da ordea, azken bi txapelketa hauek bereziak izan direla beretzat: «lasaiago egon naiz, eta suertea ere izan dut tarteko... Denak lagundu dit finalera iristen». Agirrek hiru faborito ditu buruz burukorako, hala ere, pasea edonork lortu dezakeela dio: «finalera goazen



Gaztelumendi, Irazu, Agirre eta Rezola, Illunbeko aurkezpenean.

Inork ez du esan nahi izan buruz burukora zein pasako den, baino lauei Hernaniko bi ordezkari egotea gustatuko litzaiieke.

edonork du hor sartzeko aukera. Horra iristen garen guztiok pentsakizun horrekin joan behar dugu, bestela, ez luke zentzu haundirik izango».

Txapelketa bukatuta, pertsonalki, gauza txukun bat egin izanaren sentsazioa izatea gustatuko litzaioke Agirrerri; eta orokorrean, plaza horrek merezi duen saioa eginda bukatzea.

**AGIN REZOLA:** «Dudan guztia ematera aterako naiz, okasioak merezi adinako saioa egitera»

Agin Rezola izan da Txapelketa honetako erbelazioetako bat. Inork gutxi espero zuen finalean, baina saioz saio, Illunbeko taulagainera iritsi da. Finalerdietara pasatzea zuen helburu, eta hori eskuratuta, gainontzeko presiorik gabe etorri dela adierazi du: «Txapelketa, puntu eta sailkapenei dagokionean, aspaldi egin nituen. Nire finala Oñatiko saioa (final laurdenak) izan zen, eta hortik aurrerako guztia presiorik gabe etorri da». Bertsoan ordea, ez omen ditu egin beharreko guztiak egin: «10.000 pertsonen aurrean daukadan guztia ematera irtengo naiz, okasioak merezi adinako saioa egitera. Lortuko dudana edo

ez, beste gauza bat da».

Buruz burukorako pasean edozer gertatu litekeela azaldu du: «batzuk aukera gehiago dituzte, baina ez dago maila diferentzia, 4 horietatik gainontzeko 4etara. Guretzat, politena, bertso eskolako bi igotzea litzateke».

Txapelketa saioaren batean goia jo izanaren sentsazioarekin bukatzea gustatuko litzaioke. Eta alderantziz, ez litzioke finalean oharkabean pasatzea gustatuko: «detaile batzuk utzi nahi nituzke».

**BEÑAT GAZTELUMENDI:** «Sinetsi nahi dut aurtengo txapelketa bideko beste mugarri bat besterik ez dela»

Txapelketa ona egin behararen ardura nabaritu du Beñat Gaztelumendik, aurreko txapelketan 2garren postua eskuratuta: «nire bertsokera definitzen joan naiz, eta orain koherentziaz kantatu behar dut, hori aldatu gabe. Ez noa postu baten bila, nire burua aurkitu nahi dut oholtzan, eta aldi berean, hobetzen jarraitu. 24 urte daukat eta sinetsi nahi dut aurtengo txapelketa bideko beste mugarri bat besterik ez dela; gozatzea gustatuko litzaidake».

Buruz burukoa jokatzeko 8ak pasa daitezkeela dio: «zortziok daukagu ibilbide bat, bertsokera bat eta emaitzan baino gehiago pentsatu beharko dugu saioan».

Guztia bukatuta, dena eman izanaren sentsazioa izatea gustatuko litzaioke, eta bere zilborrera begiratuta, bere burua aurkitzea.

## ANTTON ZABALA - ESKALATZAILEA:

# «Ekaitz Maiz eta biok pozik geunden egindako lanarekin, baina sari honek gure lana aitortu du»

Antton Zabala eta Ekaitz Maizek uztailean Marbore Dorreko ipar horman ireki zuten pareta, eta horren lehenengo igoera saritu zuen Espainiako Mendi Federazioak, 'Paretako Eskalada' sailean. Joan den larunbatean izan zen hori, Madrilen.

Irati Sarasua Arabaolaza

Nazioarteko sari bat eman berri dute.

Urtero Espainiako Mendi Federazioak, FEDMEk, lehiaketa bat antolatzen du, eskaladaren modalitate ezberdinetan burutzen diren proiektuak saritzeko. Nik aurtengoan, lehenengo aldiz, Ekaitz Maiz etxauriarrarekin batera, proiektu bat aurkeztu dut lehiaketako "Paretako Eskalada" sailean.

Aurkeztu genuen proiektua izan zen, "Agur eta ohore" bidearen irekiera eta lehenengo igoera. Marbore Dorreko iparraldean dagoen horma hau, legendarioa da eskaladan, zailtasun mailari dagokionez, gogorrena 8a-koa izan daiteke eta 300 metroko bidea da.

Gerora Juan Mari Iraola eta Juan Vallejo igotzen saiatu ziren, baina ez zuten lortu eta horien ostean Azkoitiko eskalataile batzuk egin zuten saiakera, azken hauek lortu zuten bidea egitea, baina eskalada librean.

Zer suposatzen du sari honek eskalataile batentzako?

Aitortza. Lan ona egin genuela bagenekien Maiz eta biok. Saria irabazi aurretik pozik geunden egindako lanarekin, baina sari honek gure lana balioetsi duela uste dugu.



Ekaitz Maiz eta Antton Zabala, eskalataile hernaniarra, joan den larunbatean, saria jaso ostean. Argazkia: Dario Rodriguez/desnivel.com

**Bide hori noiz ireki zenuten? Zein izan da prozesua eta nola burutu duzue?**

Iaz Pirineoetara, Marbore Dorreko iparraldeko hormara, joan ginen eskalatzera eta bideak irekitzeko aukera zegoela ikusi genuen bertan. Egund "Agur eta ohore" bidea dagoen pareta, birgina zela ikusi genuen eta irekitzea erabaki genuen.

Aurten hiru bidaia egin ditugu bertara eta hauetan horma ekipatzea lortu dugu, lana uztailearen 31n amaitu genuen. Gustura aritu ginen ekipatze lanetan eta proiektu interesgarria izan da.

**Zure lehenengo esperientzia da pareta eskaladan bidea zabaltzea, normalean kirol eskaladan aritzen zara paretak zabaltzen, nolakoa izan da esperientzia? Eta zein ezberdintasun du kirol eskaladan bideak zabaltzearekin?**

Niri gehien gustatzen zaidana kirol eskalada da, baina egia da edozein eskalada modalitateko projekturi ezezkoa ematen ez diodala. Horren ondorioz, paretan, boulderrean, txapelketatan etabar aritzen naiz, guztiak uztartuz normalean.

«Nire lehenengo esperientzia da paretako eskaladan, eta xarma berezia duela esan behar dut. Ez da eskalda hutsa»

Nire lehenengo esperientzia da paretako eskaladari dago-kionean, eta xarma berezia duela esan behar dut. Mendian naturaz inguratuta egotea polita da edozein mendizalarentzat, eskalada mota honetan ekintza bera da zirrargarria. Ireki berri dugun "Agur eta ohore" bidea dagoen hormara heltzeko, esaterako, 3 orduko oinezko bidea egin behar da, 300 metroko pareta da, 2.700 metroan hasten da eta 3.000 metroan amaitzen da lana. Beraz, prozesu horrek guztiak du zerbait berezia, ez da eskalada hutsa.

**Etorkizunera begira zein asmo duzu?**

Orain arte bezala arituko naitela uste dut. Kirol eskaladan zentratuta, baina beste era-

tako proiektuak ere burutzen.

**Urtebeteren buruan familiako bikide izan zarete sarituak FEDME-ren eskutik. Iaz Andoni Arabaolazaren lana, hau da, zure osabarena, aitortu zuten sari banaketa berean.**

Hala da, aurreko urtean nire osabak kazetari moduan egiten duen lana aitortu zuten. Aitortza hori merezita zuela uste dut, mendia eta eskaladaren inguruan egiten duen lana bikaina da, eta eskalataile guz-

tiok eta mendia gustuko dugun guztiok eskertzeko modukoa. Beraz, inork merezi bazuen aitortza hori, bera zen.

Nire kasuan, aldiz, Ekaitz Maiz eta biok lana behar bezala burutu dugula uste dut. Politia izan da urtebeteko tar-tearekin osabak eta biok aitortza jasotzea.

**Nori eskaintzen diozu saria?**

Batetik, familiari eta lagunei, eta bestetik, Euskal Herriaren alde borrokatu duten guztiei. ||



Antton Zabala eta Ekaitz Maiz. Argazkia: Dario Rodriguez/desnivel.com



# Hernaniko kronika

## gabonetako ZOKKETA 2011

EGIN ZURE EROSKETAK HERNANIN!  
HERNANI BIZIRIK!

\* SASKI ERRALDOIAK, BAKOITZAK 15 SARITIK GORA!  
 \* ERRIFAK SALGAI 1 €-AN BERRIAK-eko ESTABLEZIMENDUETAN  
 ETA HERNANIKO KRONIKAKO BANAKETA PUNTUETAN  
 \* DAGOENEO LAU SASKIAK BETETA DAUZKAGU!



**SASKI BEREZIA** **HERNANI BIDAIAK:**  
 Hotel Villa de Laguardiara eskapada bi lagunentzat. Gau bat + ongi etorriko afaria.  
 Villa Lucia ardoaren zentro tematikora bixita. Bodegaren bixita eta ardo dasketa. Wine oil spa zirkuitua.

**HIRUGARREN SASKIA**



1. **MARI FE ARRANDEGIA:** langostino kg 1
2. **KAIXO:** emakume poltsa eta gizonetako kartera
3. **ZINTZARRI TABERNA:** Marques de Monistrol, cava kaja
4. **BIDEO BALANTXA:**
  - a. Bazkideentzat: 29€ txartelan
  - b. Bazkide ez direnentzat: txartela + 29€
5. **VALEN:** Urme arropa
6. **ALKORTA HARATEGIA:** paletilla (ezkurrez hazia)
7. **URUMEA FERRETERIA:** Laban joku bat egurrezko oinarriarekin

8. **PORTALONDO:** Eskritorioko jokua eta agenda
9. **NEKANE ESTETIKA:** Rosa Bulgaria gorputz tratamendua
10. **IBAI MENDI:** Trango motxila bat
11. **AMEGAR:** Fagor CR18 kafetera
12. **LEOKADISTI LIBURUDENDA:** 2 LIBURU (bat erderaz, bat euskaraz)
13. **EZKATI ILEAPAINDEGIA:** ile kortea eta lintea
14. **DORRONSORO:** Hilabetean eguneko ogi bat.
15. **IRIGOIEN ZAPATADENDA:** etxeko zapatilak
16. **JAJONE KONJELATUAK:** Iberiko lotea

**BIGARREN SASKIA**



1. **MARI FE ARRANDEGIA:** xapua
2. **PELISIMO:** Aurpegi garbiketa
3. **ARREGI ALTZARIAK:** Koadro sorta bat
4. **FELI DEKORAZIOA:** albormoz bat
5. **HOKI LENTZERIA:** emakume pijama
6. **ANTZIOLA OKINDEGIA:** Erregeetako roscoa
7. **BALANTXA:** MP3 bat
8. **EZKERRO FRUTAK:** Fruta saski bat
9. **JAJONE KONJELATUAK:** 2kg langostino

10. **BIOKBI OPTIKA:** Ray Ban betaurrekoak
11. **KERA:** Kazadora bat
12. **ONDDI:** Beronia kiantza ardo kaja
13. **GALERIAS BUEN PRECIO:** kristalezko koktelera jokua
14. **NEKANE ESTETIKA:** Rosa Bulgaria gorputz tratamendua
15. **DORRONSORO:** Hilabetean eguneko ogi bat.
16. **URBIETA KOPIAK:** bulegoko materiala

**LEHENENGO SASKIA**



1. **MARNA:** Auka markako pultsera eta brotxea, eta Doran Luyren fular bat
2. **HAIZEA:** 50€ko balea
3. **TELEMAR:** Telefono mugikor bat
4. **URRATS ZAPATADENDA:** Brako markako botak, emakumezkoentzat
5. **MARISCOS HERNANI:** langostino 1kg
6. **KAIXO:** Urme motxila eta aterkia
7. **MARI FE ARRANDEGIA:** Legatza
8. **OIHALA:** franelazko maindire jokoa
9. **PELISIMO:** Ordubeteko masajea

10. **ARALAR TABERNA:** Viña Real ardo kaja, bere kopa eta guzti
11. **ANTZIOLA OKINDEGIA:** Erregeetako roscoa
12. **JAJONE KONJELATUAK:** Iberiko lotea
13. **ZINTZARRI TABERNA:** Estrella Galicia 1906 Reserba, zerbeza kaja
14. **NEKANE ESTETIKA:** Rosa Bulgaria gorputz tratamendua
15. **DORRONSORO:** Hilabetean eguneko ogi bat.
16. **IRIGOIEN ZAPATADENDA:** etxeko zapatilak

**ABENDUAK 21, asteazkena:**

- **Gazte Txokoa:** Santo Tomas azokara irteera.

**ABENDUAK 22, osteguna:**

- **Kontzertua:** Doinu zale musika eskolako ikasleak eta Ozenki abesbatzak. Ereñotzuko elizan, 19:00etan.
- **Gabon kanten jaialdia:** Kantuz abesbatzak antolatuta. Herriko ikastola eta abesbatzen eskutik, San Joan Bataiatzailea elizan, 20:00etan.
- **Gabonetako kontzertua:** Hernani Musika Eskola publikoko piano eta soka ikasleak. Biteri kultur etxean, 18:00etan.

**ABENDUAK 23, ostirala:**


- **Gabonetako kontzertua:** Ozenki abesbatza eta Hernaniko Musika Banda. Milagrosa kaperan, 19:45etan.
- **Gabon kantak kalez kale:** Musika Eskolako ikasleak. 17:00etan.

**ABENDUAK 24, larunbata:**

- **Baserriz baserri, olentzeroa:** Gudarien plazatik abiatuta, 15:00etan.
- **Gabon kantak:** Hernaniko Parrokiko abesbatza. Agustindarren elizan, 17:00etan.



- **Olentzero kaleetan barrena:** Ttarla dantza taldea. Gudarien Plazan, 18:00etan.
- **Gabon gaueko kale buelta:** Kantuz abesbatzak. Milagrosa kaperan, 18:30etan.
- **Gabon gaueko erronda:** Hernaniko Musika Banda. Gudarien plazan, 20:00etan.

**ABENDUAK 25, igandea:**

- **Eguberri eguneko alborada:** Hernani Musika Eskolako txistulariak. Herrian barrena.

• Gabon zoriontsua izan ezazue eta urte berri on!!! •

**TELEFONOAK**  
 ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622  
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
 ✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● **Gauzez:** Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077

**EGURALDIA**  
**GAUR** Zaparradak botako ditu eta goizean trumoi ekaitza eta kazkabarra bota ditzake. Elur-kota 800m inguruan kokatuko da. Iparraldeko haizea bizi ibiliko da. Min.6° / Max.10°  
**BIHAR** Euria egiten jarraituko du. Elur-kota 1000 m-tik 1300 m-ra igoko da gauean. Ipar-mendebaldeko haizeak indartsu joko du. Min.6° / Max.10° (euskaime)

## GABONETAKO EKITALDIAK



Zortzi abesti eskainiko dituzte, Patxi Apeztexearen zuzendaritzapean.

# Zazpi kontzertu, Eguberriak girotzeko

Eguberriko txistu kontzertua antolatu dute gaurko, Milagrosa Kaperan, 13:00etan. Gainontzeko emanaldiak, aste osoan zehar izango dira, gehienak osteguna eta larunbata bitartean.

KANTUZ Abesbatzak atzo eskainitako kontzertua Gabonen bueltan antolatu dituzten guztien hasiera besterik ez zen izan. Gaur hasi eta Eguberri egunera arte, beste zazpi kontzertu eskainiko dituzte Hernaniko abesbatza edo musika taldeek. Ia guztiak ostegun, ostiral eta larunbatean izango dira.

### Txistua eta gitarra elkarrekin, 8 abestitan

Zortzi abestiko errepertorioa osatu du Txistulari Bandak Eguberriko kontzerturako: *Gabon abesti bilduma, Eguberriko kantak, Alborada navideña...* Txistua izango da protagonista, baina gitarrak ere izango du lekua gaurko emanaldian. Kontzertua eguerdiko 13:00etan hasiko da, Milagrosa kaperan.

Olentzerok kale buelta egin du Gabon gau egunean; 18:00etan aterako da, Plazatik.

### Ekintzaz jositako astea

Kontzertu emana ostegunean hasiko da, hiru antolatu baituzte egun horretarako. Aurrenekoa Musika Eskolako piano eta soka ikasleek eskainiko dute Biterin, 18:00etan. Ordubete geroago, Doinuzale musika eskolako ikasleen eta Ozenki abesbatzaren emanaldia izango da, Ereñotzuko elizan. Eta azkenik, urteko kontzertu nagusietakoa izaten dena eskainiko dute herriko eta ikastoletako abesbatzek. San Joan Bataiatzailea parrokan izango da, 20:00etan.

Ostiralean kontzertu bakarra izango da, Ozenki abesba-

tzak eta Hernaniko Musika Bandak Milagrosa kaperan emango dutena; 19:45etan hasita. Egun berean baita ere, 17:00etatik aurrera, Gabon kantak kalez kale kantatzen ibiliko dira Musika Eskolako ikasleak.

Egun nagusia, zalantzarik gabe, larunbatean izango da. Parrokiko abesbatzak Gabon kantak abestuko ditu 17:00etan hasita, Agustindarren elizan. Horrez gain, olentzeroarekin baserri kantuan ibiliko dira, Gudarien plazatik 15:00etan aterata. Eta kaleetan barrena ere ibiliko da ikazkina, Plazatik 18:00etan abiatuta. Kantuz abesbatzakoek kale buelta egingo dute, 18:30etan, Milagrosatik aterata. Eta Gabon Gaueko erronda ere ez da faltako; 20:00etan abiatuko dira, Plazatik. ||

## ZINEA



Nadine Dumon, Comete Sareko sortzaileetako bat

### 'Azken bidaiak', Comete Sareari buruzko dokumentala Biterin, gaur

Enara Goikoetxea eta lurre Telleriak ostiralean Biterin aurkeztu ostean, asteburu osoan *Azken bidaiak* dokumentala ikusteko aukera dago Biterin. Bi hemanier hauek zuzendu dute, eta musika ere, beste hemanier batek jarri du: Joxan Goikoetxeak. Dokumentala Comete Sareari buruzkoa da, Bigarren Mundu Gerran naziengandik ihesi zebiltzanez laguntzen aritu zen sareari buruzkoa alegia. Abiaputua: 1943 urtean, Urruñako Bide-Gain baserrian, 6 lagun atxilotu zituzten alemanek, eta Florentino Goikoetxea mugalari hemaniarra libratu egin zen. ||

### 'Las aventuras de Tintin: el secreto del Unicornio' pelikula Biterin, gaur

Steven Spielberg zuzendariaren azken filma ikusteko aukera izango dute gaur heldu zein gazteek, Biterin: *Las aventuras de Tintin: el secreto del Unicornio*. Saio bakarra eskainiko dute, 16:30etan. Sinopsia: Ase ezina den kazetaria da Tintin eta Malu txakurrarekin ibiltzen da hara eta hona. Halako batean, marku baten maketa bat topatzen dute, eta bertan, deskubritu beharreko sekretu bat dago. ||



## IRAGARKI MERKEAK

**ENARA GOIKOETXEA.** Sendabide energetikoa, Kristaloterapia, Ayurveda Masajea, Obsidiana harrien masajea beroa, Bach loreak, Metamorfikoa, Reikia, Argi Kanalak Tarot terapeutikoa. Tel.: 649700762.  
**ETXKO KONPONKETAK** egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.  
**YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA.** Fotodepilazioa, eguberriko prezio bereziak 2X1. Beherape-nak aurpegi tratamenduetan. Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.  
**Alicia C.C.:** Hobeto sentitzen laguntzen zaitut; hipnosi indarberritzailea, coaching, PNL, erlaxazioak, Bach loreak... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146 (Agustindarren plaza, 4)  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

# IBILKOM

**KARROZERIA**  
TURISMOAK ETA FURGONETAK

TXAPA - PINTURA **AUTOCOLOR**  
BEIREN TINTATZEA  
IBILGAILUEN ROTULAZIOA

**IBILGAILU INDUSTRIALAK**  
**KARROZATUAK**

KAMIONETAK  
BOLKETEAK - GRUAK  
ISOTERMOAK - HOTZ EKIPOAK

*Vanesa eta Miguelo*

Harategia eta aurrez egindako janaria

**ZABALIK**  
ABENDUAREN 25ean  
eta  
URTARRILAREN 1ean  
10:00 - 15:00

**GABON ZORIONTSUAK HERNANIAR GUZTIORRI!**

**1kg TRIPAKI**  
**9'95€**

Prestatutako  
**KARAKOLAK**  
ere baditugu

Larramendi, 17 - HERNANI    Enkargutarako: 943 55 03 32